

1 CANVAS BALOREZKO PROPOSAMENA.




Gure proiektuaren eta enpresaren izena ZIL da. Proiektu honen berrikuntza haurrentzat jantziak eta jostailuak alokairuan jartzea da. Horretarako, denda fisiko bat erosi edo alokairuan hartuko dugu, bertan jantziak eta jostailuak bezeroei alokatuz eta bigarren eskuan salduz, hauek enpresa jasangarriei erosiko dizkiegu eta gure bezeroen donazio bidez ere jasoko ditugu produktuak. Horrela, arropen bigarren erabilera emateaz gain, ahalik eta ekoizpen jasangarriena duten enpresei materiala erosiko diegu. Era horretara, ehungintza-industriak ingurunean duen inpaktua murriztuko genuke eta hauek erabiltzen dituzten milaka litro ur aurreztu. Horrez gain, gizartean dagoen desberdintasun ekonomikoa murriztuko genuke, jantzien eta jostailuen prezioa guztientzako eskuragarri bihurtuz.

Gure proiektua zabaltzeko abiapuntua hasiera batean lokal bat izango da. Abiapuntua hasiera batean lokal bat izango da. Inkesta bat egin genuen (1.irudia) eta bertan jendeari galdetu genion ea erabiltzen ez zituzten jantziak donatzeko prest egongo liratekeen, erantzuna positiboa izan zen. Gero hauek alokairuan jarriko ditugu. Proiektua bide honetik doala ikusiz gero, online ere lan egingo dugu.

Erabiltzen ez duzun arropa gure dendara ekartzeko prest egongo zinateke?

123 erantzun



1.irudia

Pertsonalizazioa ez da gure balio nagusia izango oraingoz, guretzat funtsezko balioak kalitatea eta jasangarriak izatea baitira.

Proiektu honen helburuetako bat ehungintza-ekoizpen masiboa murriztea da. Gaur egun arropa asko erosten ditugu behar barik; gure proiektuari esker arropa gehiegikeria

murriztu eta kalitatezko produktu jasagarriak eskainiz, jantzien produkzioak eragiten duen kutsadura eragotzi nahi dugu. Honekin batera, jendeak erabilerarik ematen ez dizkien produktuak bigarren eskuan alokatzeko aukera ere eskaintzea da gure xedea. Zerbitzu honek alde positiboak dauzka, kalitatezko jantziak izatean epe luzean irauteko prest egongo baitira eta era berean, bezeroek nahi dituzten arropa berriak eskuratu ahalko dituzte ekoizpen-masiboarekin eta jasagarritasunarekin arazorik izan gabe.

Diseinuari hasieran ez diogu garrantzia emango, baina irabaziak lortuz gero diseinuak hobetzen ahaleginduko gara, beti ere prezio egokiak mantenduz. Egon daitezke erosleak gure ideologiari garrantzia ematen ez diotenak, hau da, produktua etikoa den begiratzen ez diotenak edo produktua ekoizteko modua ingurunearekin arduratsua den begiratzen ez diotenak. Modu garbian esanda: produktua diseinugatik bakarrik erosten dutenak. Produktu honen markak edo statusak oraingoz ez dauka garrantzi handirik, hala ere, zeharkako balio bat izan daiteke. Prezioa balio potente bat izango da, jantziak eta jostailuak kalitatezkoak izateaz gain garrantzitsua iruditzen zaigu gure produktuak denentzako eskuragarriak izatea, guk zuzenean erosten ditugun arropak lehenengo alokairuan jarriko ditugu oso salneurri eskuragarrian; eta erabilera batzuen ondoren, bigarren eskuko arropa gisa salduko ditugu. Hauek, hasierako prezioarekin alderatuta izugarritzko diferentzia edukiko dute, gure helburua betez. Bezeroek lehenengo prezioari begiratzen diote normalean eta erosten dutenean kalitatezkoa den ziurtatzen dira. Horren ondorioz. Agian, gerta liteke arropa batzuen prezioak garestixeagoak izatea, egoera horretan ikuspuntu ekologistagoa duten bezeroek erosiko dituztela arropa horiek aurreikusten dugu.

Denentzako egongo da produktu hau baliagarri, espero dugu norberaren egoera ekonomikoak asko ez baldintzatzea, azken batean hori baita gure helburua. Hasieran Euskal Herrian irekiko dugu denda eta aukera bakarra bertatik erostea izango da. Gure jomuga, zerbitzua ahalik eta gehien zabaltzea da, baina betiere baliabide jasagarriekin eta modu etiko batean. Horregatik, langileak kontratatzen hasten garenean, esperientzia gabekoak izango dira. Gaur egun arazo handia delako esperientzia gabekoentzat lana aurkitzea. Guk modu horretara gazteen arteko langabezia murriztu nahi dugu.